

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2011ko otsailaren 24a. VIII. urtea. 2.180. zenbakia. [www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

## Langabetu kopurua %86 igo da Tolosaldean azken hiru urteetan

Langabezi tasa %13,3koa da, Gipuzkoako batz bestekoa baino 0,6 puntu altuagoa; egun 2.734 langabetu daude eskualdean, gehienak emakumezkoak

Tolosaldea Garatzeneko Lanbide zerbitzuko arduradunak, Leire Otaegik, azaldu duenez «egoera latza da», krisiak orain arte kaltetu gabeko sektoreak jo dituelako **o3**



Ferialekua txiki gelditu denez, kanpoan aurkitu behar izan dute lekua. I. URKIZU

## Sormenak leku gehiago behar du Tolosan

Inauteriek badute sormenerako txoko propioa, Ferialekua, baina tokia txiki geratu zaie karroza eta konpartsa egileei; Tolosako Udaletik «ahal dutena» egiten dutela azaldu dute **o5**

**Mikel Errazkin** Aranzadiko kidea eta idazlea

## «Memoria historikoaren eraikuntza pieza txikiz osatutako mosaikoa izan liteke»

Anoetarrak gaur aurkeztuko du 'Memoriaren izenak' lana 19:30ean Tolosako udaletxean **o4**

## Lizartzan eta Berastegin Inauteriak ospatuko dituzte asteburu honetan

Bihar eskoletako haurrak mozorroturik irtengo dira bi herrietan; Berastegin ospakizunak etzi amaituko dira eta Lizartzan igandean **o7**

[www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)

herrietako informazioa inoiz baino gertuago  
ezagutu gure webgune berriak

[www.ibarraldea.hitza.info](http://www.ibarraldea.hitza.info) • [www.alegialdea.hitza.info](http://www.alegialdea.hitza.info) • [www.anoetaldea.hitza.info](http://www.anoetaldea.hitza.info) • [www.villabona-aiztondo.hitza.info](http://www.villabona-aiztondo.hitza.info)  
[www.leitzaldea.hitza.info](http://www.leitzaldea.hitza.info) • [www.tolosa.hitza.info](http://www.tolosa.hitza.info)

# Oinarrizko joskintza ikastaroa egiteko aukera dago

Martxoaren 16an hasiko da ikastaroa eta bost saio izango dira; izena martxoaren 11 bitarte eman daiteke

**Erredakzioa** Anoeta

Anoetako Udalak Oinarrizko Joskintza ikastaroa egiteko aukera eskaini nahi die herritarrei. Nola egin atzera puntadak, albainduak, ...; nola jaso barrenak; nola konpondu zuloak eta sendotu belauak; nola josi botoiak, kortxeteak, botoi zuloak; nola jarri kremaileira bat: poltsa txikitxo bat egingo da eta kremaileira ipiniko

zaio. Azken finean, josten ikaste-ko aukera paregabea izango da.

Itsaso del Rey izango da ikastaroko irakaslea. Martxoaren 16an hasiko litzateke eta apirilaren 13ra bitartean, guztira bost saio egingo dituzte. Asteazkenetan izango dira 18:00etatik 20:00etara. Hozpel kaleko udal lokaletan izango da.

Ikastaroa 35 euro ordaindu behar harko da. Murrizpenak izango dira: famili ugaria, langabetu, ikasle, pentsiodun edo 60 urtetik gorakoentzat %25a, gazte txartelarekin %10a.

Izena emateko epea, martxoaren 11 bitartean izango da. Udaltxean, goizez edo liburutegian arratsaldean apuntatu ahalgo da.

## → Laburrak

### Emakumearen Eguneko afarirako izen ematea

**ADUNA** > Martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko afaria egingo dute Adunan. Martxoaren 12an, 21:00etan Adunako Ostatuan egingo dute. Afaria, 35,50 euro gutxi gorabehera ordaindu beharko da. Izena emateko azken eguna martxoaren 4a da eta 943 69 39 30 telefono zenbakira deitu beharko da.

### Korrikako batzordeko eta herri programako bilerak

**ADUNA** > Bi urtetik behin pasatzen da Korrika eta aurten ere Adunatik pasako denez, eta ekitaldiak antolatzeko asmoarekin gaur 19:00etan bilera egingo dute kultur aretoan. Jarraian, hauteskundeak direla eta, 19:30ean, herri programari buruzko bilera egingo dute. Herritarrak gonbidatuta daude.

### Emakumearen Eguneko afarirako izen ematea

**ANOETA** > Anoetan Emakumearen Nazioarteko eguna ospatzeko afaria egingo dute. Martxoaren 11n izango da 21:00etan Goikoetxea Jatetxean. Izena martxoaren 9a baino lehen eman behar da udaletxean edo kiroldegian jarritako paperean. Bertan, bakoitzak haragia edo arraina nahi den zehaztu beharko da. Afaria 25 euro ordainduko da.

### Emakumeen eguneko irteeran izen ematea

**ZIZURKIL** > Zizurkilen Emakumearen Nazioarteko Eguna ospatzeko irteera egingo dute martxoaren 12an. Zestoako EkainBerri kobetara joango dira eta ondoren bazkaria Zumaiko Marina Berri jatetxean egingo dute. Izena, Aurrera Plazako bulegoetan edo liburutegian eman beharko da. 28 euro ordaindu beharko da eta oinetako erosako eramatea gomen datzen dute.

# Ijitoak Inauteriak oso gertu daudela iragartzera datoz

Tolosara ez ezik, Anoeta, Irura, Ibarra eta Zizurkilera ere etorriko dira; hauetan bihar ospatuko dute eguna

**Eneritz Maiz**

Tolosarrak eta tolosar ez direnak ere, Ostegun Gizona iristeko desatzen daude. Eta ohiturari jarraituz, Inauteriak ate joka ditugula iragartzeko ijitoak etorriko dira Tolosara larunbatean. Baina Tolosara bakarrik ez, Anoeta, Irura, Ibarra eta Zizurkilera ere iritsiko dira egun bat lehenago.

Ibarran, plazan elkartuko dira eta txarangarekin batera Euskal Herria kalea zeharkatuz berriz ere plazara joango dira. Eta dantza egitearekin batera, txorixoa jateko aukera izango da.



laz haur askok parte hartu zuen Anoetako kaldereroen festan. E. MAIZ

Iruran ere Loatzo Musika eskolakoek eskutik kalejira egingo dute. Anoetan, kaleak ijituz eta musikaz beteko dituzte Loatzo musika eskolako txarangarekin. Loatzo Musika Eskola, Anoetako Herri Ikastola, Anoetako Udala, Kuku elkartea eta Txolarre irratia dira antolatzaileak. Kalejira bukatu ondoren ez da txistorralaz haur askok parte hartu zuen Anoetako kaldereroen festan.

rik faltako herriko plazan. Eta Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolakoek ere kaldereroak ospatuko dituzte. Biharko eguna bukatzeko, Tolosan, Leidor Aretoan Eduardo Mokoroa musika eskolakoek kontzertua eskainiko dute.

Larunbatean berriz, egun osoko festa izango da Tolosako kaleetan barrena.

## ↓ Kaldereroak eskualdean

### HILAK 25, BIHAR

- **Anoeta.** 18:30ean Anoetako plazan elkartuko dira Loatzo Musika eskolakoak. Eurria egingo balu, frontoian.
- **Ibarra.** 18:00etan guztiak herriko plazan elkartuko dira. 18:30ean txarangarekin abiatuko dira. Geldialdi bakoitzean taldetxo batek dantzatuko du.
- **Irura.** 18:00etan, Loatzo Musika eskolakoak, Musika eskolatik abiatuko dira.
- **Tolosa.** 20:00etan Leidor Aretoan 'Eduardo Mokoroa' Tolosako Udal Musika

Eskolako ikasleek Kalderero kontzertua eskainiko dute.

- **Zizurkil.** Pedro Mari Otaño ikastetxeak kaldereroak ospatuko ditu 15:15etik aurrera egingo duen desfilearekin.

### HILAK 26, ETZI

- **Tolosa.** 11:00. Erraldoi eta buruhandiak plaza zaharretik irtengo dira. 12:00. Tolosa Kantari kantujiraren hasiera, Maria Luisa Agirre Doktoarearen plazaratxoan. 15:00. Haurren txantxo lehiaketa zentro sozio kulturallean. 16:00. Haur jaialdia Aiz-Orratz

elkarrekin antolatuta, Leidor Aretoan. Jaialdian, Txantxo lehiaketako irabazleen berri emango da. 19:00. Urdiña Txikik antolatuta, kaldereroen konpartsa aterako da plaza zaharretik. 23:30. Incansables txaranga kalez kale ibiliko da, Ezpeleta elkarrekin babesarekin.

### HILAK 27, IGANDEA

- **Tolosa.** 12:15. Inauterietako kontzertua izango da Berdura plazan. Tolosako Musika bandak eta udal txistulari bandak joko dute.

## Irudia > Tolosa



# AMAROS AUZOKO MERKATU TXIKIA

Igandean itxiki dituzte ateak Amaro Auzo Elkarteko Merkatu Txikiak. Tolosako Kultur Etxeko beheko solairuan dago eta 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Edizio

honetan bildutako dirua, Nikaraguako Malpaisilloko Xochilt Acal emakume antolatuen zentroa bideratuko dute. Zentro honetan emakumeen hezkuntza bideratzen da. ITZEA URKIZU



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Langabezia %86 igo da eskualdean azken hiru urteetan eta egun 2.734 lagun daude lanik gabe

Tolosaldean %13,3koa da egun langabezi tasa eta langabetuen artean gehiengoa emakumezkoa da

**Imanol Garcia**

Azken hiru urteetan Tolosaldean langabezia ia bikoiztu egin da. 2007ren amaieran %7,1ekoa bazen, 2011ko urtarrilean %13,3koa da. %86 igo da, beraz, denbora tar- te horretan. Langabetu kopuruari dagokionez, egun 2.734 lagun daude zerrendan izena emanda, orain hiru urte baino ia 1.300 gehiago.

Herri nagusiei begiratzuz gero, Tolosan langabezi tasa %12,8koa da, eskualdekoa baino zertxobait baxuagoa. Villabonan %15a arte iristen da eta Ibarra %14,7koa da. Zizurkilenean %14,7koa da eta Asteasu %10,3koa bada ere, azken hiru urteetan %85eko hazkundera igo da langabezi tasak. Anoetan %14,9an dago, Iruran %21,3ra igo iristen da eta Alegian %15,5ekoa da. Berastegin eta Amezketan nahiko baxua dute batz bestekoarekin alderatuta, %8,3a eta %6,9a, hurrenez hurren.

Generoari dagokionez, emakumezko gehiago dago langabezia- n. 1.438, gizonezkoak baino, 1.296. Nabarmentzekoa da ere 45 urte edo gehiago dituzten langabetuak 1.163 direla. Sektoreei begiratzuz gero, langabetu kopuru handiena zerbitzuetan dago, ondoren industrian, eraikuntzan eta nekazaritzan.

Gipuzkoako hamaika eskualdeetatik, langabezi tasa altuena duen laugarrena da Tolosaldea. Gipuzkoako batz bestekotik 0,6 altuagoa. Bi muturretan Bidasoa eta Debagoiena daude. Lehenengoak %16,1a du eta besteak %10,4a.

Iaz guztira eskualdean enplegua erregulatzeko 64 espediente

burutu ziren. Aldi baterako eten- dako kontratuak ia zortziehun izan ziren eta kaleratutako langileak 248. Espedienteek, beraz, 1.045 kontratari eragin zieten. Kaleratutako langile kopuru handiena du Tolosaldeak Gipuzkoako beste eskualdeekin alderatuz.

## «Egoera latza da»

Tolosaldea Garatzeneko Lanbide zerbitzuko arduraduna den Leire Otaegik azaldu duenez, «egoera latza da. Orain arte eragin ez dien sektore batzuei jo die, metalgintzari adibidez».

Langabezi zerrenda ere handitu ahal izan da lehen izena ematen ez zutenek orain eman dutelako. Familia batean soldata etxera eramaten zuena langabezia gelditu bada eta orain lana topatzea zaila dagoenez, bikotea ere lan bila hasten da eta izena ematen du langabezi zerrendan.

Egoerak 45 urtetik gorako langileei asko eragin diela dio Otaegik. «Krisiari gaineratu behar zaio adinak suposatzen duen zailtasuna», dio. «Enpresa batek errazago hartzen du langile gazte bat heldu bat baino».

Azken hiru urteetan Lanbide zerbitzuan «eromena» izan dute, jende asko joan baita bertara. «Gainera jendea oso oso erreta dago», azaldu du Otaegik. «Premia handiko egoeretan daude eta asko porru eginda. Jasotzen diren albisteek ere etsipen handia ematen dute».

Enplegua sustatzeko asmoz, Tolosaldea Garatzeneko eta Tolosako Udalak hiru ikastaro antolatu berri dituzte. Osasun zaintzalearena abian dago eta beste biak, planoen interpretazioa galdaragintzan eta sukalde laguntzailea, Inauterien ondoren hasiko dira. Hiru ikastaroetan 47 lagunentzako lekua zegoen eta 178 lagunek eman zuten izena. Aurreikusten zuten hainbeste pertsonen interesa izatea. «Krisi garai honetan jendea oso interesatuta dago ikastaroetan», dio Otaegik.



Ibarra lurretan dagoen Apatta Erreka da eskualdeko industriagune garrantzitsuenetako bat. A. IMAZ

## ↓ Langabeziaren bilakaera

	2007/12	2008/12	2009/12	2010/12	2011/01	2007tik igoera metatua (%)	Langabezia 2011/01 (%)
Abaltzisketa	4	7	10	7	7	75	5,5
Aduna	6	7	15	16	20	233	11,2
Albiztur	2	4	9	8	12	500	9,2
Alegia	63	76	108	126	120	90	15,5
Alkiza	8	12	11	11	14	75	10,2
Altzo	9	15	19	23	25	178	19,1
Amezketeta	24	33	36	36	33	38	6,9
Anoeta	81	97	110	120	128	58	14,9
Asteasu	38	48	53	60	70	84	10,3
Baliarrain	1	4	6	8	6	500	12
Belauntza	9	15	19	14	13	44	9,2
Berastegi	18	33	33	32	34	89	8,3
Berrobi	21	21	24	31	31	48	12,6
Bidegoian	7	6	10	14	13	86	6,7
Elduain	4	8	8	6	5	25	5,2
Gaztelu	4	2	6	6	7	75	8,8
Hernialde	9	17	16	20	18	100	14,0
Ibarra	152	210	254	296	303	99	14,7
Ikaztegieta	19	12	19	20	22	16	11,2
Irura	46	54	80	100	104	126	21,3
Larraul	1	4	4	8	7	600	11,1
Leaburu	14	21	24	25	30	114	16,1
Lizartza	13	24	35	36	42	223	13,5
Orendain	6	4	4	5	5	-17	8,6
Orexa	0	4	5	5	3	-	5,7
Tolosa	619	750	948	1.004	1.072	73	12,8
Villabona	198	266	353	388	405	105	15
Zizurkil	95	118	190	181	185	95	14,7
<b>Tolosaldea</b>	<b>1.471</b>	<b>1.872</b>	<b>2.409</b>	<b>2.606</b>	<b>2.734</b>	<b>86</b>	<b>13,3</b>
Gipuzkoa	22.932	30.059	38.494	39.449	41.472	81	12,7

## ↓ Enplegua erregulatzeko espedienteak 2010ean

	Espediente kopurua	Etendako kontratuak	Hautsitako kontratuak	Guztira
Aduna	14	103	-	103
Anoeta	5	66	23	89
Asteasu	5	99	-	99
Belauntza	1	20	-	20
Ibarra	12	121	225	346
Ikaztegieta	4	42	-	42
Irura	6	129	-	129
Lizartza	1	12	-	12
Tolosa	11	125	-	125
Villabona	3	51	-	51
Zizurkil	2	29	-	29
<b>Tolosaldea</b>	<b>64</b>	<b>797</b>	<b>248</b>	<b>1.045</b>

## ↓ Langabezia sexuka eta sektoreka Tolosaldean

Gizonezkoak			Emakumezkoak			Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Aurretik enpleg. gabe
<25	25-44	>=45	<25	25-44	>=45					
136	652	508	107	676	655	38	687	273	1.556	180

## Mikel Errazkin > Aranzadiko kidea eta idazlea

Espainiako Gerran eta Lehen Frankismoaren garaian, Tolosan bizitako errepresioa eta giza eskubideen urraketa ikertu ditu. Egindako lanaren emaitza gaur aurkeztuko du Tolosako udaletxean, 19:30ean.

# «Orrialdea pasa aurretik irakurri egin behar da, baina horretarako lehenik idatzi egin behar da»



ENERITZ MAIZ

Asier Imaz Tolosa

**Memoriaren izenak** liburua idatzi berri du Mikel Errazkin (Anoeta, 1976). Bertan, ahantzuran galdu diren memoria berreraikitzen saiatu da Aranzadiko kidea. **Nola sortu zitzaizun liburuaren ideia?** Aranzadi zientzia elkarte 2000. urteaz geroztik, memoria historikoaren berreskurapena deitu izan zaion mugimendu horretan aritu da. Batez ere, fusilatuen gorpuak hobietatik atereaz eta azken batean, familiarrei erretoak bideratuz. Tolosaren 750. urteurrenaren testuinguru horretan, tolosarrei buruzko datu piloa genuenez, liburu bat argitaratzeko asmoa sortu zitzaigun. **Herritarren lekukotzek ba al dute lekuri liburuan?** Liburuaren izena hortik doa. Gerra zibilaren inguruan asko idatzi da eta tokian tokiko historian ikusten genuen ekarpena, batez ere, gizon eta emakumeen historia sozial hori berreskuratuz. Memoria historikoaren eraikuntza

pieza txikiz osatutako mosaiko handi bat izan litekeela ikusten dugu. Batetik, egia ezagutzeko eta bestetik, frankismoaren garairako biktima horiei erreparazio morala eskaintzeko. **Liburuaren azalean gerra argazki bat jarri duzue, Trianguloarena.** Tolosan frankistak 1936ko abuztuaren 11n sartu ziren. Barrikada horiek errepublikarrek utzi zituzten azken barrikadak dira. Alegia, errepublikaren alde borrokatu zutenen azkeneko erresistentziaren argazkia da. **Tolosako barrikada horien inguruan, baita herritarren artean ere, bi aldeetako biktimak eroriko ziren, ezta?** Gerra zibila bukatu zenean eta frankismoa estatu berria sortzen hasi zenean, hasiera hasieratik, euren politikariek nagusia memoria politikoa eraikitzea izan zen. Garaileen bandoak izan zituen hildako eta fusilatu horiek biktima bezala zituzten eskubideak bermatzeko, politika ezberdinak gauzatu zituzten. Tarte horretan, garaileek euren historia

idatzi zuten liburuetan, monumentuen bidez edo kale izendegiarekin. Aldiz, gerra galdu zutenak, azpiratuak eta ahaztuak izan ziren. Kasu honetan, ahantzuran galdu diren pertsona horien memoria berreraikitzen saiatu gara. **Larunbatean, Tolosako hilerrian, ahantzuraren aurkako monolitoa jarriko da.** Nazioarteko zuzenbide penalararen arabera, biktimek hiru eskubide dauzkate: egiaren ezagutza, justizia egiteko eskubidea eta erreparazio morala. Liburu honekin saiatu gara da, metodologia zientifiko bat jarraituz, egiaren ezagutzan jarduten. Larunbateko omenaldiarekin, batez ere, biktima horien erreparazio morala nahi izan da landu. **Justiziaren eskubidea falta da.** Horretarako, biktimen erakundeek eskatzen duten bezala, biderik logikoena, egiaren batzordea sortzea izango litzateke. **Zenbait tolosarrentzat ez al da mingarria izango liburu hau?**

Batzuek leporatu dakigukete hautsa harrotzea dela. Nazio Batuen erakunde kide batek esaten zuen, orrialdea pasa aurretik irakurri egin behar dela. Horri agian, gehitu diezaiokegu orrialdea irakurri ahal izateko, orrialdea idatzi egin behar dela. Ba-

tzuek lehenbailehen ahaztea nahiko dute agian, beraien eskubideak bermatuak daudelako. Beste batzuek berriz, ez dakite non dauden hobiratuta beraien familiarrekoak. Orduan, azken batean, eskaera sozial batez ari gara hitz egiten.



Azaleko argazkian, ez daudenak dira protagonista Errazkinen ustez. HITZA

## harpidedun izateak badu saria

**1 Otordua**

**Tolosako Eguzkitza**  
sagardotegian  
2 pertsonentzako  
otordua

Tolosa • Tel.: 943-67 26 13

**2 disko**

**The 44 Dealers**  
taldearen  
Welcome to the big fat and greasy  
blues soul diskoaren  
bi ale

---

**3 Sarrera pareta**

**LAGUN ARO GBC**  
Assignia Manresa  
saskibalo partida

**SAN SEBASTIÁN GIPUZKOAR BASKET S.A.**

Otsailak 27 • Igandea 17:00etan Donostiako Ilunben

**4 Sarrera pareta**

**Bebek**  
eskainiko duen  
kontzerturako  
sarrera pare bat

Martxoak 11 • Ostirala 20:30ean Tolosako Leidorren

Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kidea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunetan, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza** info



Inauterien atarian, karroza eta konpartsei azken ukituak emanez ari da hamaika herritar. Ferialekua, ordea, txiki geratu zaio tolosarren sormenari.

# Gustuko lekuan aldaparik ez

## Itzea Urkizu

Inauteriak badatoz, eta Tolosako festarik eroenetan ezinbesteko bihurtu dira konpartsak eta karrozak. Hastapenetan norberak bere lagun-taldearekin garaje, lokal edo txoko desberdinetan karroza prestatzen zuen arren, urte batzuk dira jada udalak karrozak prestatzeko ferialekua uzten duela.

Azken hamarkadetan asko hazi da Zaldunita eta Asteartitako karrozetako parte-hartzea, eta Tolosako Inauteriak are biziago bihurtze aldera hau seinale ona den arren, ferialekua txiki geratu zaie inauterizale hauei. Aurtengo

Inauterietarako jada 280 karroza eta konpartsek eman dute izena, Joan den urteko parte-hartzaile kopurua gaindituz, eta ezinezkoa suertatu da guztiak era erosoan ferialekuan lanean aritzea.

Hau dela eta, haserreak eta desadostasunak sortu dira karrozak prestatzen diharduten zenbait tolosarren artean, eta «hurrengo urterako udalak konponbide hobe bat bilatzea» esperu dute.

### Udala «ahal duena eginez»

Ferialekuko toki faltaren auzia duela urte batzuk sortu zen, aipaturiko parte-hartzaileen gorakadaren ondorioz, eta Jokin Monfort festa teknikariak «karrozak



Konpartsa txikienek hutsik geratu diren txokoak hartu dituzte. I. URKIZU

egiteko dagoen toki guztia jendearen zerbitzura» jartzen dutela dio. 2000-3000 metro karratuko azalera du ferialekuak, eta «duela urte batzuk udalak ez zuen lokalik uzten karrozen prestaketarako».

Inauterietako bilera eta prestaketekin hasten direnean, udaleko langileak karrozetako partaideekin urtero biltzen direla dio Monfortek, eta «euren iradokizunak nahiz keaxak bildu» egiten dituztela nabarmendu du, urtero antolakuntza hobetze aldera. «Bilera honen ondoren ahalik eta hobekien antolatzen dugu guztia, eta egia da partzelarik geratzen ez de-

nean, konpartsa txikiak sartzeko lekutxoak uzteko eskatzen diegula jada han daudenei». Monforten esanetan, «urte gutxitan gehien aldatu dena da karroza, eta aurrerapen handiak egin dira bai diru-laguntzei dagokienez, baita antolakuntzaren aldetik ere».

Era berean, ferialekuko partzelak esleitzerako garaian kanpotarrei eta tolosarrei lehenetasun bera eman izan zaie orain artean, eta parte-hartzaile batzuek erabateko desadostasuna adierazi dute honekin ere, herritarrek lehenengoak izan beharko luketela uste baitute. «Hurrengo urterako behar bada beste erabaki bat har-

tu beharko da honi dagokionez, Tolosako parte-hartzaileei lehenetasuna emanez. Baina hau elkarlanean egingo dugu, inauterizaleekin burutzen dugun bileraren ondoren», dio Jokin Monfortek.

Bestalde, Inauterietako materiala urte guztian zehar gordetzeko leku baten beharra nabari dute karrozetan lanean aritzen diren zenbaitek, eta «udalak karroza eta konpartsa guztiak urte osoan zehar gordetzeko lekurik ez duela» nabarmendu du Monfortek. Ahalagin eta lan handia egiten dutela dio, eta «batzuek zoriondu egin gaituzte, lana ez baita hain erraza».

## Juanito Ortega • Inauterizalea eta karroza eta konpartsetako partaidea

# «Jendea izenik eman gabe sartzen da ferialekuan, eta hori da arazoa»

## Itzea Urkizu

Juanito Ortegak bi hamarkada daramatza Josetxo Guiurekin batera karrozarekin ateratzen, eta ferialekuaren inguruan bere iritzia adierazi dio HITZARI.

### Kontaguzuz zein egoera dagoen aurtengo ferialekuan.

Ferialekua bete-betea dago. Gainera, normalean baino jende gehiago sartu da. Udaletxeko festetako arduradunarekin hizketan aritu nintzen, eta ferialekuan giltza aurrez hartu gabe ez zela inol sartuko ziurtatu zidan. Egia esan, hori urtero esaten dute, baina ez da sekula betetzen. Kontua da, bertan dagoen jendearen erdia giltzarik gabe sartzen dela, izenik eman gabe, eta nahi duen lekua hartzen duela. Guk, 20 urte baino gehiago daramatzagu leku berean jartzen, eta pixkanaka kanporantz mugitzen ari gara.

### Ba omen da kanpoan lanean ari denik ere.

Bai, lauzpabost karroza txiki ari

dira, baina urte-garai honetan egiten duen eguraldiarekin ezinezkoa da kanpoan lanean aritzea. Ferialeku barruan hotz egiten badu, pentsa kanpoan... Egoera horretan ezin da lanik egin, eta kanpoan dauden gazteak barrura sartzen dira ahal duten txokoa hartu eta lanean jarraitzeko.

### Tolosan karrozentzat bereziki prestaturiko leku bat beharrezkoa ikusten al duzu?

Lokal bat? Hau ondo dago berez, baina gero eta jende gehiago dago, eta hori da arazoa. Gazte asko ari da bertan lanean, gauza txikiekin, baina horiek ere badute irteteko eskubidea. Ez dakit... Beste modu batera antolatuko nuke, baina hori zail ikusten dut.

### Kanpotarrak ere ari dira karrozak prestatzen, ezta?

Bai, inguruko herrietakoak ere ari dira prestatzetan: Anoetakoak, Ibarakoak, Andoaingoak, ... Tolosar asko ari da lekurik gabe, batzuk kalean, eta aldez Tolosakoak ez diren karroza batzuek leku

erosoak dituzte ferialekuan. Zerbait pentsatu beharko dute arduradunek, karroza eta konpartsen oihitura ez baitoa bide onetik horrela.

### Tolosarrek ferialekuan lan egiteko lehenetasuna izan beharko lukete?

Noski, zalantzarik gabe. Nik ez dut esaten kanpotarrek Inauterietan parte hartzeko eta karrozak egiteko eskubiderik ez dutenik, baina lehenengo tolosarrok sartu beharko genuke ferialekuan, eta ondoren, lekurik geratzen baldin bada, kanpotarrek.

### Aurtengo lapurretak ere izan dira.

Bai, hala da. Ferialekua ireki eta bigarren egunean, kamioien bateriak, kable-sareak, burdinak, eta antzekoak lapurtu zituzten. Kartera ere lapurtu zioten karroza batean lanean ari zen bati. Ondorioz, egunero erremintak eta tresneria guztia jaso behar izaten dugu, eta etxera eramanez edo giltzapetu, badaezpada ere.

### Udalak egoera hobetzeko zerbait egin beharko lukeela uste al duzu?

katuko karro batekin ateratzen dira, eta diru-laguntzak banatzeko garaia heltzen denean, diru kopuru bera ematen diete karro txikiarekin ateratzen direnei eta bizpahiru hilabete ferialekuan sartuta pasa dutenei. Horrek, azkenean, nazkatu egiten zaitu. Aurrekontua ez zaigu nahi dugun guztirako iristen, eta urtez urte guztia garestitu egiten denez, hurrengo urtean ezer ez egiteko gogo ematen du. Gero gainera, udalekoek karroza guztiak ahalik eta txukunenak izatea nahi dute. Laguntza gehiago eskainiko balute behintzat... Aurrekonturik ez dagoela esatearekin konponetzen dute guztia. Betikoa errepikatzen da urtero.

**Ingeniaritza**  
Txandakako IMH Ingeniaritza

**Elgoibarren**

**Ate irekiak: MARTXOAK 5 (11:00etan)**

hona emateko: IMH (Eskatzaileak) Tolosa, 945744132 - ingeniaritza@imh.es - www.imh.es

# Dantza-soka eguna ospatuko dute

Larunbatean 08:30ean hasiko dute eguna. Dantza eta sokaren inguruan, egun osoko jaia prestatu dute

**Erredakzioa** Anoeta

Larunbatean egun handia izango dute Anoetan. Dantza-soka eguna ospatuko dute. Anoetarren egutegian dagoeneko gorritz markatua dago Kaldereko Eguna, urtero, egun horretan antolatzen baitute festa hau.

30 urtez galdua egon zen arren, 2003. urtean berreskuratu zuten. Aurtendaino, dantza goizez eta arratsaldez egiten zuten baina aurten, goizez bakarrik egingo dute. Honela, bazkal ordua lasaigo pasako dute eta dantzarientzat eguna arinagoa izango da.

## 85 herritar dantzan

13 urteko haurretatik aurrera adin mugarik ez dago egun honetan parte hartzeko. Neska eta mutil, 85 lagun elkartuko dira eskutik heldu eta dantza egiteko. Aurten berrikuntzekin dator eguna, formatua aldatu baitiote.

Neskek eta mutilek, bi korro ezberdin osatuko dituzte, baina guztiak batera ariko dira dantzan. Egun beharreko dantzak aurreko

urteetakoekin berdinak dira, aldaketa txiki batzuk baino ez dizkio te sartu.

Goizean 08:30etarako elkartuko dira plazan eta bi taldetan banatuta, baserrietara joango dira. Axeri Dantza, arin arina eta fandangoa dantzatuko dituzte. 12:00etarako dantzari guztiak herriko plazan elkartuko dira eta dantza nagusia dantzatuko dute. Hau izaten da eguneko unerik hunkigarriena.

Aurrekulari eta atzeskulariak ere aldatu egin dituzte. Bakoitzetik bina izan beharrean, bana izango dira. Kasu honetan, aurrekularia neska eta atzeskularia mutila izango da.



Pasa den asteko ostiralean bezala, bihar ere, entsegu orokorra egingo dute herriko frontoian. Garrantzitsua da bertan izatea. E. MAIZ

Jarraian, guztiak babarrun jatea egingo dute Kuku Elkartearen. Ondoren, herriko trikitilariekin kalejira eta Itzel taldearekin erromeria izango dituzte. Talogileak ere ez dira faltako eta taloak gerturazten diren guztiengat izango dira. Herritarrek bizitzen duten eguna den arren, dantza eta erromeria gustuko duenak aukera ezin hobea izango du Anoetan.

Larunbatekoa egun berezia izango bada, etzi guztia ongi ateratzen dadin, bihar egingo duten entsegu orokorrera joatea ezinbestekoa izango da. Beraz, dantza-sokan parte hartu behar dutenek herriko frontoian 18:30ean dute hitzordua.

## ↓ Dantza - soka eguna

### HILAK 26, LARUNBATA

- **08:30.** Parte hartzaile guztiak plazan elkartuko dira.
- **09:00.** Baserrietara abiatuko dira.
- **12:00.** Baserrietatik bueltan plazan elkartuko dira dantza egiteko.

- **14:00.** Babarrun jatea Kuku Elkartearen.
- **18:00.** Kalejira herriko trikitilariekin.
- **19:00.** Erromeria izango da Itzel taldearekin.
- **Taloak.** Plazara inguratzen diren guztiengat taloak egongo dira.



# Ezker abertzaleko alkate eta hautetsiek bat egin dute manifestazioarekin

Larunbaterako AHT Gelditu! Elkarlanak deitu duen manifestaziora joateko deia luzatu dute

**Erredakzioa** Anoeta

Asteartean Tolosaldeko ezker abertzaleko zenbait alkate eta hautetsi Anoetako udaletxean elkartu ziren. Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak larunbaterako Tolosan antolatutako manifestazioari atxikimendua eman zioten, eta era berean, Abiadura Handiko Trenari lotuta gertatu diren «bidegabekeriak» salatu zituzten.

«Demokrazia eta giza-eskubideak politikari askoren ahotan barra-barra dabilzan honetan, inoiz baino ageriagoan uzten ari

dira Abiadura Handiko Trena behar direla esan, alor guztietan murrizketak ezarri, eta bien bitartean, lotsagabeki handitzen ari dira Abiadura Handiko Trena egiteko aurrekontua. Nola erantzun behar diegu horrela herritarren benetako beharrei? Nondik ateratzen behar dugu dirua benetan garrantzitsuak diren gauzetarako, hau da, gizarte laguntzak, hezkuntza, herritarren ongizatea...?» gaineratu zuten.

«Udaletan gastuak txikiagotu behar direla esan, alor guztietan murrizketak ezarri, eta bien bitartean, lotsagabeki handitzen ari dira Abiadura Handiko Trena egiteko aurrekontua. Nola erantzun behar diegu horrela herritarren benetako beharrei? Nondik ateratzen behar dugu dirua benetan garrantzitsuak diren gauzetarako, hau da, gizarte laguntzak, hezkuntza, herritarren ongizatea...?» gaineratu zuten.

Horrez gain, proiektua bultzatzen ari diren ordezkari politikoko lurjabeekin eta Abiadura Handiko Trenaren kontra dauden udalekin erakusten ari diren ja-

rrera guztiz iraingarria dela salatu zuten. «Ez digute informaziorik bidaltzen, ezkutukeriatan dabilta herritarrek ezjakintasunean egoteko eta kontrako mugimendurik ez sortzeko» argitu zuten.

Adunak gertaturikoa azaldu zuten: «Zizurkil-Urnieta zatian, zundaketak egin nahi zituztela eta, Adunako lurjabeek Andoaingo Udalera joateko dei egin zieten. Adunako Udala ezertaz ez konturatzeko eta herritar horiei babesik eta laguntzarik eman ahal ez izateko. Gerora, Adunako Udalak eta zenbait lurjabeek zundaketak egiteko desjabetze aktak lursailetan bertan sinatu nahi zituztela jakinarazi arren, Madrillgo Sustapen Ministerioak eskubide hori ez errespetatzea erabaki zuten, inolako arrazoirik eman gabe eta kaltetuei ezer jakinarazi gabe» azaldu zuten.



Hautetsi independentistek prentsaurrekoa eskaini zuten Anoetan. A. IMAZ

Gainera, «zundaketak egiteko garaian bideak txikituta eta bazterrak hondatuta utzi ondoren, udalak gauzak lehen bezala uzteko eskatzean, txikizioak udalaren mantentze txarraren ondorio zirela erantzun zioten, ez zutela ezer konpondu beharrik. Non gertatzen dira gu guztion eskubideak? Interes orokorra aitzakiazat hartuta egiten dute guztia, baina norena da interes hori udalaren eta herritar guztion interesak zabalitzen badituzte?» galdetu zuten.

Tolosako lehen zatian berriz, aspaldian hasi zituztela obrak go-

goratu zuten. Tolosako lurrrak izan arren ordea, «ikaztegiak direla kaltetu zuzenak» argitu zuten. «24 orduz ari dira lanean. Herri gunetik pasatzen den trafikoaz gain, erabateko zarata jasan behar dute. Eta eguneko gutxi balitz, gauzez ere, erabateko zarata jasan behar dute. Herri guztia aztoratuz, leherketak ere, gau eta egun egiten dituzte».

Hau guztia dela eta, «nahikoa da, ezin gara isilik geratu, gure ahotsa entzunarazi behar dugu: herriak bizirik, AHTrik ez!» esanez amaitu zuten.



Gutuna

## Langabe ikastaroei buruz

Kaixo. Gazteluko herritar bat naiz. Orain dela gutxi Tolosaldea Garatzen-era joan naiz ikastaro bati buruzko informazio eske. Bertako langile batek esan dit Gazteluko naizenez ikastaro horretan ezin dudala parte hartu. Zergatik? Ikusten denez Gazteluko Udalak Tolosaldea Garatzenek eskaintzen dituen zerbitzu horiek ez ditu ordaintzen, beraz, herritarrak ez daukagu eskubiderik bertan eskaintzen diren gauzetan parte hartzeko. Idatzi hau aprobetxatuz galdera bat egin nahi nioke Gazteluko Udalari, izan ere, udaletxera joan ez gero, informazio eske, inongo erantzunik gabe bidaltzen zaituzte. Hau al da herritarrei laguntzea? Ondoz izan.

■ **Izaro Goikoetxea**, Gaztelu.

# Mozorroak prestatzen hasi dira jada lizartzarrak eta berastegiarrak

Bihar eskolako haurren mozorro eta kalejirekin emango diete hasiera Inauteriei Lizartzan eta Berastegin.

### Maier Ugartemendia

Tolosarrak Inauterien zain dauden arren, Lizartzan eta Berastegin asteburu honetan bertan izango dute Inauteriez gozatzeko aukera. Lizartzarrekin lehengo larunbatean eman zieten hasiera ospakizunei, eta bihartik igandera bitarte berriz ere festa giroan sartzeko aukera izango dute. Berastegiarrak ere bihar hasiko dituzte ospakizunak eskolako haurren kalejirarekin, eta hauek larunbatean amaituko dituzte Inauteriak. Ea eguraldia lagun izaten duten.



Berastegiko haurrek aurten ere dantza emanaldia eskainiko dute Inauterietan. N. URBIZU

## ↓ Lizartzako eta Berastegiko Inauteriak

### LIZARTZA

#### OTSAILAK 25, BIHAR

■ **14:15.** Eskolako antolatuta mozorro festa. Ondoren, kalejira egingo dute.

#### OTSAILAK 26, ETZI

■ **07:00.** Plazan elkartu eta puske biltzera joango dira. Dantzariak eta txantxoak elkarrekin joango dira ospeletik.

■ **09:30.** Etxe-zahar baserrian geldialdia egingo dute gosaltzeko.

■ **12:00.** Mozorro, gurdi eta txarangen irteera Errota ataritik.

■ **13:30.** Inauteriko partaide guztiak kalejira, Arrateko zubitik

irtenda. Ondoren, parte hartu duten guztiak bazkaria egingo dute herriko frontoian.

■ **18:00.** Gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dira kalejira, jarraian plazara jaisteko, bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak dastatu eta Lizartzako talogileak egindako taloak jateko aukera izango da. Ondoren, bertso poteoa tabernetatik kalejira.

■ **23:00.** 3gabe2 taldearen kontzertua gaztetxean.

#### OTSAILAK 27, IGANDEA

■ **11:00.** Agintari eta dantzariak

Meza Nagusira, txistulariak eskainitako *Agintari doinuaz* la-gundurik. Ondoren, hamaiketa-koa plazan.

■ **12:00.** Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen, gurdi, mozorro eta gainerakoekin.

■ **13:00.** Lizartzako Inaute Dantzak plazan.

■ **14:00.** Inauteri bazkaria egingo dute herriko pilotalekuan. Ondoren txarangak, karaokea, jokoak, zozketak, sariak eta abar izango dira.

■ **20:30.** Plazan ijitoa errez aurtengo inauteriei amaiera emango diete.

### BERASTEGI

#### OTSAILAK 25, BIHAR

■ **14:30.** Eskolako umeak mozorrotuta aterako dira eta kalejira egingo dute herrian barrera. Ondoren, Guraso Elkarteak goxokiak banatuko dizkiete bertako umei.

#### OTSAILAK 26, ETZI

■ **14:30.** Herriko dantzariak beraien emanaldia egingo dute mozorrotuta. Bai taldekako, bai bakarkako mozorrorik hoberenari saria emango zaio. Ondoren txokolatada egongo da, Guraso Elkarteak antolatutarik.

## → Laburrak

### Atekarock jaialdiaren aurkezpen batzarra

**LEITZA** ▶ Bihar, hilaren 25a, 19:00etan Atekarock jaialdiaren aurkezpen batzarra egingo dute Aurrera elkarteak. Atekarock jaialdia Atekarokelz elkarteak antolatu du. Jaialdia apirilaren 2an izango da, 20:30etatik aurrera, kiroldegian. Bertan talde hauek eskainiko dituzte kontzertuak: Su Ta Gar, Berri Txarrak, Kop, Gose, Vendetta eta Bad Sound System. Sarreak laster jarriko dira salgai.

### 2011ko kirol diru laguntzak eskatzeko epea zabalik

**IBARRA** ▶ Ibarako udaleko Kirol departamentuak epea ireki du 2011. urterako Kirol Jardunetarako diru laguntzak eskatzeko. Eskaerak aurkezteko epea 2011ko martxoaren 15ean amaituko da. Oinarriak eta aurkeztu beharreko agiriak web orrian daude, [www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net) helbidean. Edo bestela, kiroldegiko bulegoetan ere eskura daitezke, 08:00etatik 13:00ak bitarte eta 15:00etatik 22:00ak bitarte.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info) / Tel.: 943-65 56 95

**HILETAREN BALIOA Txina Inperiala**

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neuniko fileta izan behar duela. Horregatik, alor honetan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazozina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@iragarri.net.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L. ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orea, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Irudia Leitza



## ERREKA BERE BIDETIK ATERA DA

Azken asteetako udaberriko eguraldia atzean utzita, euriaren txanda iritsi da. Euria erruz egiten ari da Tolosaldean eta Leitzaldean, eta ondorioz, ibaien eta erreken emaria nabarmen igo da. Tolosaldean ez da arazorik izan, baina Leitza, Areso

eta Berastegin errekek gora egingo du eta ubidetik atera zen atzoko irudian ikusi daitekeen bezala. Eguraldi iragarpenen arabera igandera bitarte ez du euri gehiagorik egingo eta tenperaturak ere pixka bat igoko dira. A. IMAZ

## Agenda

### DEIALDIK

- **Tolosa.** Musika Bandak igan-de honetan eskainiko duen kontzertuan partaide ohiei parte hartzeko deia luzatu nahi die. Hitzordua gaur izango da 20:30ean Musika Eskolan.
- **Tolosa.** Larunbateko kantu Jiran ateratzeko entsegua gaur Eduardo Mokoroa Musika Eskolan 20:00etan.
- **Ibarra.** Udaleko Kirol sailak ireki du 2011 urterako Kirol Jarduerarako diru laguntzak eskatzeko epea. Eskeraurteko azken eguna martxoaren 15a izango da. Oinarriak nahiz aurkeztu beharreko agiriak webgunean eskuratu daitezke ([www.ibarrakoudala.net](http://www.ibarrakoudala.net)) baitetik, eta bestetik, kiroldegiko bulegoetan ere eskatu ahal dira 08:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 22:00etara.
- **Berastegi.** Biotxikiztailea erabili nahi dutenek martxoaren 9a baino lehen eman behar dute izena udaletxeko idazkaritzan. Neguan zehar kimatutako zuhaitzak, adarrak eta abar txikitu ahal izateko biotxikiztailea martxoaren 12an iritsiko da.

### INAUTERIAK

- **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsen lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago. Lehiaketan parte hartu nahi duenak izena eman dezake bai kultur etxean eta baita helbide honetan [www.tolosakoudala.org/inauteriak/](http://www.tolosakoudala.org/inauteriak/).
- **Tolosa.** Aiz Orratz elkarteak antolatzen duen mozorro lehiaketa larunbatean izango da, Harizpe jubilatutako elkarteak. Lehiaketan parte hartzeko epea bihar bitarte egongo da zabalik. Izena Aiz Orratz elkartearen bertan eman beharko da 19:00etatik 20:30era.

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

### AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

agurrak

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO **hitza** info  
bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldea.hitza.info](http://www.tolosaldea.hitza.info)  
[www.leitzaldea.hitza.info](http://www.leitzaldea.hitza.info)

eraman/bidaliz izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:

•NA:

•Lanbidea:

•Jaioteguna:

•Helbidea:

•Herria:

•P.K.:

•Tel.:

•Posta elektronikoa:

•Kontu zenbakia: